



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

TRAZABILITATEA

Sarrera

Elikagaietako industrietan aplikatu beharreko trazabilitatea honela definitu dezakegu: *“ekoizpen, eraldatze eta banatze etapa guztietan zehar elikagaien, pentsuen edo elikagaiak ekoizteko abereen zein elikagaietan edo pentsuetan gehitu behar ditugun substantzien arrastoa antzeman edo jarraitzeko aukera”*.

Kontzeptu horrek esan nahi du elikagaietako enpresen eragileak kapaz izan behar direla saldutako edozein produktu identifikatzeko; eta, horrez gain, produktuaren historikoa berreraikitzeke gai izan behar dira.

Produktu baten trazabilitatea hiru mailatan egin beharko da:

- ✓ **ATZERANZKO TRAZABILITATEA**ren bidez jakin ahal izango dugu zein produktu sartzen diren enpresan eta zein diren produktu horien hornitzaileak.
- ✓ **BARNEKO TRAZABILITATEA**k lotura izan behar du produktuei enpresa barruan egiten zaien jarraipenarekin.
- ✓ **AURRERANZKO TRAZABILITATEA**ren bidez erregistratu egingo ditugu, alde batetik, bidaltzeko prest ditugun produktuen datuak; eta, bestetik, produktu horiek jasoko dituzten bezeroen datuak.

Enpresaren TRAZABILITATE SISTEMAK kontuan izan beharko du:

- Produktuaren identifikazioa, ahalik eta modu errazenean. Lotearen irizpidea definitzea.

LOTEa oinarrizko elementua da trazabilitatea kudeatzeko. Lotea da *produktu baten zenbat unitate saltzen diren; betiere produktu hori modu bertsuan ekoitzi, fabrikatu edo ontziratua izan bada.*

- Produktuaren datuak.
 - o Lehengaiak, produktuaren osagaiak edo enpresa bakoitzean sartzen diren merkantziak.
 - o Nola maneiatu, ekoitzi, eraldatu eta aurkezten den.
 - o Nondik datorren eta norako den, bai eta kontzeptu bi horietarako datak ere.
 - o Zein kontrolatik pasatu den eta zein izan diren horien emaitzak.
- Produktuaren identifikazio eta datuen arteko erlazioa. Produktu baten mugimenduak jarraitzeko prozesuak lotura zuzena du merkataritza-informazioarekin, barne prozesuekin eta autokontrolarekin.

Beharrezkoak diren agiriak

ATZERANZKO TRAZABILITATEA:

- ✓ Zein diren produktuen jatorria eta zehaztasunak. Zein den hornitzaileekin harremanetan jartzeko modua (telefonoa, faxa).
- ✓ Enpresan sartzen diren produktuak identifikatzea: jasotako produktuaren gaineko informazioa – ahalik eta zehatzena – (izena, aurkezteko formatua, bolumena, lotea, datak...).
- ✓ Emate-agiria, merkataritzako agiri laguntzailea edo/eta faktura, betiere produktuaren identitatearen gaineko datuak ematen badituzte.



- ✓ Noiz jaso diren produktuak (data).
- ✓ Zenbat produktu jaso den: produktuaren bolumena (guztira).
- ✓ Jasotako produktuak norako diren: non biltegiatuko diren, nahasketak egiteko diren...

Atzeranzko trazabilitatearen bidez lotu egin ahalko dira barneko trazabilitatea eta hornitzailearen trazabilitatea.

BARNEKO TRAZABILITATEA:

- ✓ Tarteko produktua edo azken produktua egiteko erabili diren produktuak erregistratzea. Horretarako, harrerako erregistroak, loteen erregistroak edo stockeko erregistroak... erabili ahal dira.
- ✓ Tarteko puntuak identifikatzea, nahiz eta behin betikoak ez izan. Produktuek jasaten dituzten operazioak deskribatzea, bai eta horiek kontrolatzeko ardura duten pertsonak zein diren ere.
- ✓ Azken produktua eta prozesua identifikatzea. Horretarako, loteari dagokion kodea erabiliko da.
- ✓ Produktua zein egunetan eta zein orduan ekoitzi den erregistratzea.
- ✓ Informazio hori eta prozesatuaren kontrolerako datuak erlazionatzea, esate baterako tenperaturak.

Barneko trazabilitatea zailena izan liteke, eta ekoizitako produktua honako kontzeptu hauekin lotu behar du zehatz-mehatz: ekipoak, ildoak, hozkailuak, biltegiak, prozesuan zehar jasan dituen nahasketak edo zatiketak.

AURRERANZKO TRAZABILITATEA:

- ✓ Zein enpresa edo arduraduni ematen zaion produktua. Zein den bezeroarekin harremanetan jartzeko modua (telefonoa, faxa).



- ✓ Lotearen zenbakia erregistratzea edo/eta enpresatik ateratzen diren produktuak multzokatzea.
- ✓ Zein egunetan entregatzen diren produktuak (data).
- ✓ Zein diren garraioaren gaineko datuak (garraiolaria, edukiontzi mota, garraiatzeko tenperatura, ibilgailuaren matrikula...).

Aurreranzko trazabilitateak lotura eduki behar du bezeroen atzeranzko trazabilitatearekin, eta aukera eman behar du produktuari buruzko ahalik eta informazio gehien eskuratzeko.

Produktu akastunak aurkitzeko eta biltzeko prozedura

Beharrezkoa da enpresak idatziz jasota izatea zelan jokatu behar duen baldin eta istripuren bat edo elikagaien alertaren bat gertatuz gero.

Horrelako ekintzak aurrera eraman ahal izateko prozedurak honako hau jaso beharko du:

- ❖ Arazoa aztertzeko beharrezkoa den informazioa nola bildu (arazoaren jatorria, nola aurkitu produktua, nola geldiarazi...).
- ❖ Zein diren arazoa aztertuko duten pertsona arduradunak.
- ❖ Zeinek duen ardura erabakiak hartzean eta nola ekingo zaion arazoari.
- ❖ Nola jakinaraziko zaion Administrazioari eta alderdi interesdunei.
- ❖ Zein diren neurri zuzentzaileak.

Trazabilitate sistema egiaztatzea

Azkenik balioztatu egin beharko da ea trazabilitate sistemak ondo funtzionatzen duen ala ez, eta ikusi ea eraginkorra den sortu zen helburuarekiko eta zelan egokitu ahal diren sor litezkeen hutsuneak.

Balioztatzean, kontuan izan beharko dugu, alde batetik, zein izango den erantzuteko denbora, arazo bat sortuz gero. Izan ere, denbora tarte hori ahalik eta laburrena izan beharko da, pertsonen osasuna jokoan egon baitaiteke. Eta, bestetik, kontuan izan beharko dugu bildutako informazio guztia zuzena den ala ez.

Interesgarria izan liteke simulazioak egitea jakiteko nola funtzionatzen duen produktuak aurkitu eta merkatutik kentzeko prozedurak.

Sistema berrikusteko prozeduran barne ikuskaritza egin beharko da. Horrela, egiaztatu ahal izango dira hainbat arlo, hala nola: loteen identifikazioa, erabilitako osagaiak, zein bezerori bidali zaion informazioa...

Sisteman hutsuneren bat aurkituz gero, zuzendu eta egokitu egin beharko litzateke.